


UDAL BATZORDEEN BERRI


LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/05/14) Hurrengo saioa: 2019/05/28	Udal Hauteskundeak	Maiatzaren 5ean Udalerako ordezkariak aukeratzeko bozka prozesua burutu zen Itsason eta bertan izandako emaitza eta hautagaien zerrendarekin etxeetara banatzeko jakinarazpena prestatu da. Hitza eta Diario Vasco-ko kazetarieei ere hautagaien zerrenda bidaliko zaiela erabaki da.	
	Udalekuak	10 gaztek eman dute izena eta, bakoitzak aukeratutako asteen arabera, proposatutako ekintzak finkatzen aritu gara. Multi-kirolaz arduratuko diren Zerkikoekin eta Robotikaz arduratuko direnekin lehenbailehen datak erreserbatuko dira.	Begiraleak finkatu eta behin-betiko egitarauaren plangintza erabaki.
	Herriko produktuen ezagutza	Itsasoko produktuak ezagutarazi eta bertako ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko proiektuaren ideia sakontzen jarraitu dugu (garaian garaikoa eta bertakoa izatearen garrantzia) eta herrian dagoen eskaintza eraginkorragoa nola egin hausnartu da. Horretarako fase desberdinak izendatu dira eta, hasteko, etxeetan zein produktu dauden jakiteko inkesta pasako da. Produktu hauekin katalogoa egin nahi da.	- Inkestaren berri eman eta zabaldu
	Herriko festak	Herriko festak antolatzen hasteko bilera data adostu da: maiatzak 18, 19:30etan, Itsasoko Udalean	

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/05/21) Hurrengo saioa: 2019/06/04	Ekaineko eta uztailako plangintza	Ekainerako aurreikusita dauden ekintzen zerrenda egin da eta horietako bakoitzean zehaztapenak egin dira: - <u>Batukadaren</u> hasiera: Ekainak 1, 18:00etatik 19:30etara bitartean. Instrumentu batzuk Legazpitik ekarri dira. - <u>Herri Batzarra</u> : Datorren asteartean, 19:30etan, Siadecorekin bilera egingo da Herri Batzarreko Itsaso2030 proiektuaren edukia adosteko. - <u>Musika Eskolaren Kontzertua</u> : Ekainaren 15ean izango da, 18:00etan - <u>Sanjuan bezpera</u> : ekainaren 23an, Sanjuan sua eta, ondoren, afaria izango dira.	- Instrumentu gehiago behar diren zehaztu - Herri Batzarra osatu - Ostaturkoekin hitz egin



		- <u>Udalekuak</u> (ekainak 24-uztailak 19): aste bakoitzean aurrera eramango diren ekintzak finkatuta geratu dira. Haurren laguntzailea izango den pertsona bat kontratatzea komenigarria dela adostu da. Jakinarazpena bidaltzen denean, izena emanda egon arren, parte-hartzea ziurtatzeko eskatuko zaiela erabaki da.	- Jakinarazpenak bidali
	Inkesta: Herriko produktuak	Herriko produktuak herrian bertan ezagutarazi eta eskaintzeko egitasmoarekin jarraitu dugu eta inkestaren edukia zehaztu dugu. Aste honetan bertan paperean jakinarazpena zabalduko da eta erantzunak herriko bi gunetako buzoietan jasoko dira: Itsason eta Alegian.	- Inkestaren emaitzak aztertu
	Goierriko irakurle taldeen III. topaketa	Maiatzaren 25ean izango da, Ordiziako Zuhaitzin (jubilatuen etxean), 17:00etan. Itsasoko irakurle taldea herrigunean elkartuko da 16:30etan Ordiziara joateko.	
	Euskara ikasteko ikastaroak	2019-2020 ikasturteari begira, aurreikuspenak egitea interesgarria dela irizten da. Komunikazio batzordean jakinarazpena prestatuko da.	Interesa azaltzen dutenekin bilera egin
	Kontsumobide tailerrak	Kontsumobidek adinduentzat kontsumoaren inguruko prestakuntza saioak antolatu ditu. Eskaintza zabala egiten dutenez, herriko adinduei galdetu egingo zaie zein den, beraien iritziz, interesgarriena. Irailaren 27a baino lehen egingo da eskaera.	Ostegunetan Alegian elkartzen den taldeari galdetu.

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOAK	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2019/05/22) Hurrengo saioa: 2018/06/05	Alegia-Uribar bide berdea	-Asfaltatzeko 15.000 euroko diru-laguntza lortu da -Falta diren hesiak egiteko aurrekontua eskatuko zaio enpresa bati udal-langileak egin ala ez baloratzeko -Presan jarri nahi den mahaia, bidea asfaltatu ondoren kokatuko da	Lan hauek burutzeko gestioak egin
	Alegiako frontoiaren argiztapena	Led argiteria jartzeko Berdingroup-ek egindako estudio luminikoa erabili da EVE-ren (Ente Vasco de Energía) diru-laguntza deialdi batera aurkezteko	Ebazpenaren ondoren berrikuntza gauzatuko da
	<i>Wiffi Europa</i> Itsaso eta Alegian	Itsason Udalak jada duen konexioaren bidez 2 edo 3 anplifikadorez jarri ahal izango da eta plaza, behealdeko parkerantz eta eliza-atarirantz zabaldu.	Talaia enpresak aurrekontua aurkeztu du eta kokapenak eta



		Alegian, berriz, linea kontratatu beharko da eta Elkartea gainera zuntza ekarri. Handik anplifikadoreei esker frontoi, parke eta plazan wiffia izango da.	zabalkundea negoziatu
	Udaletxeko obren zertifikazioa burututa	Artzamendi enpresak fakturatu du obra guztiaren amaiera. Aurrekontuan jasotako 84.000 euroei aurreikusi gabeko komuneko ate berria, eliza azpiko bi farolen buru berriak, Ostaturako eskailera eta baranda berriak eta Ostaturako sukaldeko sabaia margotzea gehitu zaizkio, guztira 95.000 euro.	
	Teknialiaren azterketa	Itsasoko Ostatu gaineko behin-betiko proiektua egiteko, egituraren azterketaren datuen zain egon ondoren, jada 300-400 k/m2 erabilera jasan ahal izango duela jakinarazi dute	Mirian Otamendi beste arkitekto batekin elkarlanean arduratuko da proiektuaz
	LANDABIDE diru-laguntza	Herri-bideak konpontzeko (Altzigarraga eta S Lorentzo bideko eskoilerak, Iturritako bide tramoak eta Errebueltatik Itze aldera doanekoak) GAINERA enpresari esleitu zaizkio lanak	Noiz burutuko dituen jakin
	Ostatuan hobekuntzak	Komuneko leihoa, mostradore atzeko tarima, sarrera eta tabernako argiak berritzea eta sarrera margotzea komeni da	Pixkanaka burutzen joan dagokion teknikoarekin
	Estintoreak	Udaletxean, Ostatuan... estintoreak falta dira edota lehengoak berrikusi gabe.	Honetan diharduten bi enpresei aurrekontuak eskatu
	Seinaletika	Errepasoa egin da eta zerrendatu falta diren edo oker dauden baserri izenak, ibilbideak osatzeko geziak...	Dagokion enpresari eskaera egin
	Desfibriladoreak Itsaso eta Alegiarako	Udaletxe sarreran eta Alegiako Elkartearen atarian kokatzeko erosiko dira eta horrekin batera erabilpena ikasteko ikastaroa antolatuko da	Adituekin harremanetan jarri
	Itsaso-Alegia oinezko zirkuitua	Bidea belarra moztuta txukun mantentzeko larunbat goiz batean talde batekin burutuko ditu	